

## **21. LEY ORGÁNICA 3/2007, DE 22 DE MARZO, PARA LA IGUALDAD EFECTIVA DE MUJERES Y HOMBRES**

(BOE nº 71, de 23 de marzo de 2007)

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

**I**

El artículo 14 de la Constitución española proclama el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo. Por su parte, el artículo 9.2 consagra la obligación de los poderes públicos de promover las condiciones para que la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas.

La igualdad entre mujeres y hombres es un principio jurídico universal reconocido en diversos textos internacionales sobre derechos humanos, entre los que destaca la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer, aprobada por la Asamblea General de Naciones Unidas en diciembre de 1979 y ratificada por España en 1983. En este mismo ámbito procede evocar los avances introducidos por conferencias mundiales monográficas, como la de Nairobi de 1985 y Beijing de 1995.

La igualdad es, asimismo, un principio fundamental en la Unión Europea. Desde la entrada en vigor del Tratado de Ámsterdam, el 1 de mayo de 1999, la igualdad entre mujeres y hombres y la eliminación de las desigualdades entre unas y otros son un objetivo que debe integrarse en todas las políticas y acciones de la Unión y de sus miembros.

## **21. MARTXOAREN 22KO 3/2007 LEGE ORGANIKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO**

(2007ko martxoaren 23ko EAO, 71. zk.)

### **ZIOEN AZALPENA**

**I**

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea aldarrikatu du. Bestalde, 9.2 artikulua sendotu du botere publikoen betebeharra, inguruabar zehatzak sustatzeko, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen.

Printzipio juridiko unibertsala da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortu dena. Bada, halako testuen artean nabarmendu behar da emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1979an onetsi eta Espainiak 1983an berretsitakoa. Esparru berean, goraiatu behar dira mundu-mailako konferentzia monografikoetan emandako aurrerapausoak, horren adibide izanik 1985ean Nairobiren eta 1995ean Beijinen egindako konbentzioak.

Era berean, berdintasuna Europar Batasuneko oinarritzko eskubidea ere bada. Egin-eginean ere, 1999ko maiatzaren 1ean, Amsterdango Tratua indarrean jarri zenetik, Europar Batasunaren eta estatu kideen politika nahiz ekintza guztietara bildu beharreko helburu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta batzuen zein besteen arteko desberdintasunak ezabatzea.

Con amparo en el antiguo artículo 111 del Tratado de Roma, se ha desarrollado un acervo comunitario sobre igualdad de sexos de gran amplitud e importante calado, a cuya adecuada transposición se dirige, en buena medida, la presente Ley. En particular, esta Ley incorpora al ordenamiento español dos directivas en materia de igualdad de trato, la 2002/73/CE, de reforma de la Directiva 76/207/CEE, relativa a la aplicación del principio de igualdad de trato entre hombres y mujeres en lo que se refiere al acceso al empleo, a la formación y a la promoción profesionales, y a las condiciones de trabajo; y la Directiva 2004/113/CE, sobre aplicación del principio de igualdad de trato entre hombres y mujeres en el acceso a bienes y servicios y su suministro.

## II

El pleno reconocimiento de la igualdad formal ante la ley, aun habiendo comportado, sin duda, un paso decisivo, ha resultado ser insuficiente. La violencia de género, la discriminación salarial, la discriminación en las pensiones de viudedad, el mayor desempleo femenino, la todavía escasa presencia de las mujeres en puestos de responsabilidad política, social, cultural y económica, o los problemas de conciliación entre la vida personal, laboral y familiar muestran cómo la igualdad plena, efectiva, entre mujeres y hombres, aquella «perfecta igualdad que no admitiera poder ni privilegio para unos ni incapacidad para otros», en palabras escritas por John Stuart Mill hace casi 140 años, es todavía hoy una tarea pendiente que precisa de nuevos instrumentos jurídicos.

Erromako Tratatuaren 111. artikulua babesean, sexuen arteko berdintasunaren inguruan Europako Erkidegoko arau-multzoa garatu da, hedadura handiarekin eta eduki sakonarekin. Hain justu ere, lege honek helburu du, hein handi batean, horren transposizio egokia egitea Bereziki, lege honek tratu-berdintasunaren arloko bi zuzentarau barneratu ditu Espainiako antolamendu juridikora. Bateko, 2002/73/EE Zuzentaraua, horren bidez eraldatu dela 76/207/EE Zuzentaraua, enplegua, prestakuntza eta lanbide-aurrerakuntza lortzeko orduan, eta lan-baldintzetan, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa. Besteko, 2004/113/EE Zuzentaraua, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta horietaz hornitzean gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

## II.

Legearen araberako berdintasun formala erabat aitortzea aurrerapauso handia izan da baina ez behar bestekoa. Genero-indarkeriak, alokairu-bereizkeriak, alarguntasun-pentsioetan dauden desberdintasunak, emakumeen langabezia-tasa handiagoak, politika-, gizarte-, kultura- eta ekonomia-esparruetako ardura handiko postuetan oraindik ere emakume gutxi izateak edo norberaren bizitza, laneko bizitza eta familia-bizitza uztartzeko arazoek agertzen dute gaur egun oraindik gauzatzeke dagoela, tresna juridiko berrien zain, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erabateko eta eragingarria, alegia, duela 140 urte John Stuart Millen hitzetan «perfektua behar zuen berdintasuna, ez eragozteagatik batzuek boterea eta pribilegioa izatea eta beste batzuek ezigaitasuna».

Resulta necesaria, en efecto, una acción normativa dirigida a combatir todas las manifestaciones aún subsistentes de discriminación, directa o indirecta, por razón de sexo y a promover la igualdad real entre mujeres y hombres, con remoción de los obstáculos y estereotipos sociales que impiden alcanzarla. Esta exigencia se deriva de nuestro ordenamiento constitucional e integra un genuino derecho de las mujeres, pero es a la vez un elemento de enriquecimiento de la propia sociedad española, que contribuirá al desarrollo económico y al aumento del empleo.

Se contempla, asimismo, una especial consideración con los supuestos de doble discriminación y las singulares dificultades en que se encuentran las mujeres que presentan especial vulnerabilidad, como son las que pertenecen a minorías, las mujeres migrantes y las mujeres con discapacidad.

### III

La mayor novedad de esta Ley radica, con todo, en la prevención de esas conductas discriminatorias y en la previsión de políticas activas para hacer efectivo el principio de igualdad. Tal opción implica necesariamente una proyección del principio de igualdad sobre los diversos ámbitos del ordenamiento de la realidad social, cultural y artística en que pueda generarse o perpetuarse la desigualdad. De ahí la consideración de la dimensión transversal de la igualdad, seña de identidad del moderno derecho antidiscriminatorio, como principio fundamental del presente texto.

La Ley se refiere a la generalidad de las políticas públicas en España, tanto estatales como autonómicas y locales. Y lo hace al amparo de la atribución

Halatan, ekintza arauemailea beharrezkoa da, zuzenean edo zeharka sexuan oinarritutako bereizkeriaren agerpen guztiak borrokatzeko, oraindik ere horrelakoak dauden ginoan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte-estereotipoak kenduz. Konstituzio-antolamenduak ondorioztatzen du betekizun hori, eta betekizun horrek bere baitara biltzen du emakumeen berezko eskubidea. Halaber, betekizun hori Espainiako gizartea aberatsago egiten duen osagaia da, ekonomia-garitzen eta enplegua gehitzen lagunduko duena.

Orobat, arreta berezia jarri da, bereizkeria bikoitzeko kasuetan eta ahulezia berezia duten emakumeen zailtasun zehatzetan; azken horien artean daude gutxiengoetara bildutako emakumeak, emakume emigranteak eta desgai diren emakumeak.

### III

Nolanahi ere, lege honen berrikuntzarik handiena da bereizkeriazko jokabide horiek prebenitzea eta berdintasun-printzipioa eragingarri egiteko politika aktiboak ezartzea. Aukera horrek berarekin dakar berdintasun-printzipioa nahitaez hedatzea errealitate sozial, kultural eta artistikoaren antolamenduko edozenbat esparrutara, horietan desberdintasuna sortu edo iraunaraz daitekeenean. Hortik, bada, testu honetako oinarritzko printzipiotzat hartzea berdintasunaren zeharkako dimentsioa, bereizkeriaren aurkako eskubide garaikidearen ikurra.

Legeak kontuan hartzen ditu Espainiako politika publiko guztiak, estatukoak eta autonomia-erkidegokoak nahiz toki-

constitucional al Estado de la competencia para la regulación de las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles y las españolas en el ejercicio de los derechos constitucionales, aunque contiene una regulación más detallada en aquellos ámbitos de competencia, básica o legislativa plena, del Estado.

La complejidad que deriva del alcance horizontal del principio de igualdad se expresa también en la estructura de la Ley. Ésta se ocupa en su articulado de la proyección general del principio en los diferentes ámbitos normativos, y concreta en sus disposiciones adicionales la correspondiente modificación de las muy diversas leyes que resultan afectadas. De este modo, la Ley nace con la vocación de erigirse en la ley-código de la igualdad entre mujeres y hombres.

La ordenación general de las políticas públicas, bajo la óptica del principio de igualdad y la perspectiva de género, se plasma en el establecimiento de criterios de actuación de todos los poderes públicos en los que se integra activamente, de un modo expreso y operativo, dicho principio; y con carácter específico o sectorial, se incorporan también pautas favorecedoras de la igualdad en políticas como la educativa, la sanitaria, la artística y cultural, de la sociedad de la información, de desarrollo rural o de vivienda, deporte, cultura, ordenación del territorio o de cooperación internacional para el desarrollo.

Instrumentos básicos serán, en este sentido, y en el ámbito de la Administración General del Estado, un Plan Estratégico de Igualdad de Oportunidades, la creación de una

administraziokoak. Hurrean ere, legeak hori egin du Konstituzioak eskumena eratziki diolako estatuari, konstituzio-eskubideak egikaritzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautzeko. Dena den, legeak arauketa zehatzagoa jaso du, estatuak oinarrizko edo legegintza osoko eskumena duen esparruetan.

Berdintasun-printzipioaren norainoko horizontalak sortzen dituen zailtasunak igarri-igarrian daude, berebat, legearen egituran. Legeak artikuluetan jaso du printzipio horren proiektzioa, araututako esparru desberdinetan, eta xedapen gehigarrietan zehaztu du ukitu diren lege desberdinen kasuan kasuko aldarazpena. Modu horretara, lege hau sortu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kode-legea izateko asmoarekin.

Politika publikoen antolaketa orokorra, berdintasun-printzipioaren ikuspuntutik eta genero-ikuspegitik, gauzatu da botere publiko guztien jardute-irizpideak ezarriz, printzipio hori botere publikoetara bildu baita modu aktiboan, esanbidez eta eragingarritasunez; halaber, izaera bereziarekin edo sektorean sektoreko izaerarekin, berdintasunari begira mesedegarriak diren jarraibideak jaso dira politika batzuetan, hala nota, hezkuntza-politikan, osasun-politikan, politika artistiko eta kulturalean, informazio-gizartearen politikan, landa-garapenerako politikan edo etxebizitza-politikan, kirol-politikan, kultura-politikan, lurralde-antolakuntzarako politikan edo garapenerako nazioarteko lankidetzaren politikan.

Esangura horretan, eta Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, oinarrizko tresnak izango dira Aukeraberdintasunaren Plan Estrategikoa; Berdintasunaren Ministerio Arteko

Comisión Interministerial de Igualdad con responsabilidades de coordinación, los informes de impacto de género, cuya obligatoriedad se amplía desde las normas legales a los planes de especial relevancia económica y social, y los informes o evaluaciones periódicos sobre la efectividad del principio de igualdad.

Merece, asimismo, destacarse que la Ley prevea, con el fin de alcanzar esa igualdad real efectiva entre mujeres y hombres, un marco general para la adopción de las llamadas acciones positivas. Se dirige, en este sentido, a todos los poderes públicos un mandato de remoción de situaciones de constatable desigualdad fáctica, no corregibles por la sola formulación del principio de igualdad jurídica o formal. Y en cuanto estas acciones puedan entrañar la formulación de un derecho desigual en favor de las mujeres, se establecen cautelas y condicionamientos para asegurar su licitud constitucional.

El logro de la igualdad real y efectiva en nuestra sociedad requiere no sólo del compromiso de los sujetos públicos, sino también de su promoción decidida en la órbita de las relaciones entre particulares. La regulación del acceso a bienes y servicios es objeto de atención por la Ley, conjugando los principios de libertad y autonomía contractual con el fomento de la igualdad entre mujeres y hombres. También se ha estimado conveniente establecer determinadas medidas de promoción de la igualdad efectiva en las empresas privadas, como las que se recogen en materia de contratación o de subvenciones públicas o en referencia a los consejos de administración.

Especial atención presta la Ley a la

Batzordea eratzea, koordinazio-ardurak izango dituen; genero-eraginaren gaineko txostenak, horiek nahitaez egin beharko direla lege-arauetan, bai eta ekonomian nahiz gizartean berebiziko garrantzia duten planetan ere; eta berdintasun-printzipioaren eragingarritasunari buruz aldian-aldian egiten diren txosten eta ebaluazioak.

Era berean, nabarmendu behar da legeak esparru orokorra ezarri duela, ekintza positiboak deritzenak garatzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarri hori lortzeko helburuarekin, lido horretatik, botere publiko guztientzako agindua da egitezkoak eta nabariak diren desberdintasun-egoerak kentzea, halakoak ezin direnean zuzendu berdintasun juridikoaren edo berdintasun formalaren printzipioa bakarrik azalduz. Eta ekintza horiek emakumeen mesedetan eskubide desberdina sor dezaketen heinean, kautelak eta baldintzak ezarri dira, halakoen konstituzio-zilegatasuna ziurtatzeko.

Gizartean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna lortzeko subjektu publikoen konpromisoa behar da, baina subjektu pribatuen arteko harremanei begira ere berdintasuna irmotasunez sustatu behar da. Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko arauketa ere aintzat hartu du legeak, kontratu-askatasun eta -autonomiaren printzipioak elkartzuz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna suspertzearekin. Halaber, egokitzat jo da enpresa pribatuetan berdintasun eragingarria sustatzeko neurri jakin batzuk ezartzea; horren adibide dira kontratuak egiteko eta diru-laguntza publikoak emateko gaian edo administrazio-kontseiluei begira ezarritakoak.

Legeak arreta berezia jarri du



corrección de la desigualdad en el ámbito específico de las relaciones laborales. Mediante una serie de previsiones, se reconoce el derecho a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y se fomenta una mayor corresponsabilidad entre mujeres y hombres en la asunción de obligaciones familiares, criterios inspiradores de toda la norma que encuentran aquí su concreción más significativa.

La Ley pretende promover la adopción de medidas concretas en favor de la igualdad en las empresas, situándolas en el marco de la negociación colectiva, para que sean las partes, libre y responsablemente, las que acuerden su contenido.

Dentro del mismo ámbito del empleo, pero con características propias, se consignan en la Ley medidas específicas sobre los procesos de selección y para la provisión de puestos de trabajo en el seno de la Administración General del Estado. Y la proyección de la igualdad se extiende a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y a las Fuerzas Armadas.

De la preocupación por el alcance de la igualdad efectiva en nuestra sociedad no podía quedar fuera el ámbito de la participación política, tanto en su nivel estatal como en los niveles autonómico y local, así como en su proyección de política internacional de cooperación para el desarrollo. El llamado en la Ley principio de presencia o composición equilibrada, con el que se trata de asegurar una representación suficientemente significativa de ambos sexos en órganos y cargos de responsabilidad, se lleva así también a la normativa reguladora del régimen electoral general, optando por una fórmula con la flexibilidad adecuada

desberdintasuna zuzentzeari dagokionez, lan-harremanen esparru berezian. Xedapen batzuen bidez, norberaren, familiaren eta laneko bizitza uztartzeko eskubidea aitortu da, eta emakumeen eta gizonen artean ardurak gehiago hainbanatzea suspertu da familia-betebeharrak hartzeari dagokionez. Arau osoak oinarri hartzen dituen irizpideak dira horiek, eta esparru honetan zehazten dira modu esanguratsuan.

Legeak enpresetan berdintasunaren aldeko neurri zehatzak hartzea sustatu nahi du; halatan, neurri horiek negoziazio kolektiboaren esparruan kokatu ditu, alderdiak izan daitezen, askatasunez eta erantzukizunez, halako neurrien edukia akordatzen dutenak.

Enpleguaren esparru berean, baina ezaugarri propioekin, legeak neurri bereziak jaso ditu, Estatuko Administrazio Orokorreko hautaketa prozesuen eta lanpostuak betetzeko prozesuen inguruan. Edu berean, berdintasunaren proiektzioa hedatzen da segurtasun-indar eta -kidegoetara eta Indar Armatueta.

Hasian hasi, berdintasun eragingarriak gizartean duen norainokoaz arduratuta, ezin da ardura horretatik kanpo geratu partaidetza politikoaren esparrua, dela estatu-mailan, dela autonomia-erkidegoen mailan eta toki-mailan, dela garapenerako nazioarteko lankidetzapolitikaren proiektzioan. Legean orekatutako presentzia edo osaera deitzen den printzipioa jaso da, ziurtatu nahian ardurako organo eta karguetan bi sexuetako pertsonak izango direla, behar besteko kopuruan. Horrela, printzipio hori hauteskundeetarako araubide orokorrean ere aplikagarri egin da, behar besteko malgutasuna duen formula baten aldeko apustua

para conciliar las exigencias derivadas de los artículos 9.2 y 14 de la Constitución con las propias del derecho de sufragio pasivo incluido en el artículo 23 del mismo texto constitucional. Se asumen así los recientes textos internacionales en la materia y se avanza en el camino de garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en el ámbito de la representación política, con el objetivo fundamental de mejorar la calidad de esa representación y con ella de nuestra propia democracia.

#### **IV**

La Ley se estructura en un Título preliminar, ocho Títulos, treinta y una disposiciones adicionales, once disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y ocho disposiciones finales.

El Título Preliminar establece el objeto y el ámbito de aplicación de la Ley.

El Título Primero define, siguiendo las indicaciones de las Directivas de referencia, los conceptos y categorías jurídicas básicas relativas a la igualdad, como las de discriminación directa e indirecta, acoso sexual y acoso por razón de sexo, y acciones positivas. Asimismo, determina las consecuencias jurídicas de las conductas discriminatorias e incorpora garantías de carácter procesal para reforzar la protección judicial del derecho de igualdad.

En el Título Segundo, Capítulo Primero, se establecen las pautas generales de actuación de los poderes públicos en relación con la igualdad, se define el principio de transversalidad y los instrumentos para su integración en la elaboración, ejecución y aplicación de las normas. También se consagra el principio de presencia equilibrada de mujeres y hombres en las listas

eginez, uztartu daitezten Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluek eratorritako betekizunak eta konstituzio-testuaren 23. artikuluko sufragio pasiborako eskubidearen betekizunak. Horrenbestez, arlo horretan dauden nazioarteko testurik berrienak bereganatu dira, eta urratsak eman dira, ordezkaritza politikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko bidean, helburu nagusia izanik ordezkaritza horren kalitatea hobetzea, eta, horren bidez, gure demokraziarena.

#### **IV**

Legearen egitura osatu dute atariko tituluak, zortzi tituluk, hogeita hamaika xedapen gehigarrik, hamaika xedapen iragankorrek, xedapen indargabetzaile bakarrak eta zortzi azken xedapenek.

Atariko tituluak legearen xedea eta aplikazio-esparrua ezarri ditu.

Lehenengo tituluak, erreferentziazko zuzentarauen aipamenei jarraituz, berdintasunaren inguruko oinarritzko kontzeptu eta kategoria juridikoak definitu ditu; halakoen artean daude zuzeneko eta zeharkako bereizkeria, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, eta ekintza positiboak. Orobat, lehenengo tituluak bereizkeriazko jokabideen ondore juridikoak zehaztu ditu, eta izaera prozesaleko bermeak ezarri ditu, berdintasun-eskubidearen babes judiziala indartzeko.

Bigarren tituluko lehenengo kapituluan botere publikoek berdintasunari begira jarduteko jarraibide orokorrak ezarri dira, zeharkakotasunaren printzipioa definitu da, bai eta printzipio hori arauak egitean, betetzean eta aplikatzean aintzat hartzeko tresnak ere. Halaber, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa sendotu da, hauteskunde-zerrendetan

electorales y en los nombramientos realizados por los poderes públicos, con las consiguientes modificaciones en las disposiciones adicionales de la Ley Electoral, regulándose, asimismo, los informes de impacto de género y la planificación pública de las acciones en favor de la igualdad, que en la Administración General del Estado se plasmarán en un Plan Estratégico de Igualdad de Oportunidades.

En el Capítulo II de este Título se establecen los criterios de orientación de las políticas públicas en materia de educación, cultura y sanidad. También se contempla la promoción de la incorporación de las mujeres a la sociedad de la información, la inclusión de medidas de efectividad de la igualdad en las políticas de acceso a la vivienda, y en las de desarrollo del medio rural.

El Título III contiene medidas de fomento de la igualdad en los medios de comunicación social, con reglas específicas para los de titularidad pública, así como instrumentos de control de los supuestos de publicidad de contenido discriminatorio.

El Título IV se ocupa del derecho al trabajo en igualdad de oportunidades, incorporando medidas para garantizar la igualdad entre mujeres y hombres en el acceso al empleo, en la formación y en la promoción profesionales, y en las condiciones de trabajo. Se incluye además, entre los derechos laborales de los trabajadores y las trabajadoras, la protección frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo.

Además del deber general de las empresas de respetar el principio de igualdad en el ámbito laboral, se contempla, específicamente, el deber de negociar planes de igualdad en las empresas de más de doscientos

eta botere publikoek egindako izendapenetan, Hauteskundeetarako Legearen xedapen gehigarrietan kasuan kasuko aldarazpenak eginez. Orobat, arautu dira genero-eraginaren txostenak eta berdintasunaren aldeko ekintzen plangintza publikoa; ekintza horiek, Estatuko Administrazio Orokorrean, aukera-berdintasunaren plan estrategiko batean jasoko dira.

Titulu horretako II. kapituluaren politika publikoek hezkuntza-, kultura- eta osasun-arloetan izan beharreko joeraren irizpideak ezarri dira. Horrez gain, sustatu nahi da, emakumeak informazio-gizartean lanean hastea, eta etxebizitza eskuratzeko politikerara nahiz landa-ingurunea garatzeko politikerara neurriak biltzea, berdintasuna eragingarria izateko.

III. tituluak jaso ditu komunikabideetan berdintasuna suspertzeko neurriak, erregela bereziak ezarri titulartasun publikoko komunikabideetarako, bai eta bereizkeriazko edukia izan dezakeen publizitatea kontrolatzeko tresnak ere.

IV. titulua arduratu da aukera berdinekin lan egiteko eskubideaz, neurriak jasoz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko, enplegua, prestakuntza eta lanbide-aurrerakuntza lortzeko orduan, eta lan-baldintzetan. Gainera, langileen eskubideen artean jaso da sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako babesa, kontuan hartu gabe langile horiek gizonak edo emakumeak diren. Enpresek lan-esparruan berdintasun-printzipioa errespetatzeko duten eginbehar orokorraz gain, modu berezian ezarri da berrehun eta berrogeita hamar langiletik gorako enpreetan berdintasun-planak



cincuenta trabajadores o trabajadoras. La relevancia del instrumento de los planes de igualdad explica también la previsión del fomento de su implantación voluntaria en las pequeñas y medianas empresas.

Para favorecer la incorporación de las mujeres al mercado de trabajo, se establece un objetivo de mejora del acceso y la permanencia en el empleo de las mujeres, potenciando su nivel formativo y su adaptabilidad a los requerimientos del mercado de trabajo mediante su posible consideración como grupo de población prioritario de las políticas activas de empleo. Igualmente, la ley recoge una serie de medidas sociales y laborales concretas, que quedan reguladas en las distintas disposiciones adicionales de la Ley.

La medida más innovadora para favorecer la conciliación de la vida personal, familiar y laboral es el permiso de paternidad de trece días de duración, ampliable en caso de parto múltiple en dos días más por cada hijo o hija a partir del segundo. Se trata de un derecho individual y exclusivo del padre, que se reconoce tanto en los supuestos de paternidad biológica como en los de adopción y acogimiento. También se introducen mejoras en el actual permiso de maternidad, ampliándolo en dos semanas para los supuestos de hijo o hija con discapacidad, pudiendo hacer uso de esta ampliación indistintamente ambos progenitores.

Estas mismas mejoras se introducen igualmente para los trabajadores y trabajadoras autónomos y de otros regímenes especiales de la Seguridad Social.

En relación con la reducción de jornada por guarda legal se amplía, por una parte, la edad máxima del menor que da derecho a la reducción, que pasa de

negoziatzeko eginbeharra.

Berdintasun-planek duten garrantziaren ageriko da, berebat, enpresa txiki eta ertainetan halakoak borondatez ezar daitezzen suspertzeko jaso den xedapena.

Emakumeak lan-merkatuan errazago sar daitezzen, xede gisa ezarri da hoherentz egitea, emakumeek enplegua lortzeari eta enpleguari eusteari dagokienez, emakumeen prestakuntza-maila eta lan-merkatuaren eskakizunetara egokitzeko gaitasuna indartuz; esangura horretan, enpleguaren politika aktiboetan, emakumeak bildu ahal izango dira lehentasuna duen biztanle-taldera. Era berean, legeak gizarte- eta lan-neurri zehatzak jaso ditu, legearen xedapen gehigarrietan arautu direnak.

Norberaren, familiaren eta laneko bizitza uztatzea errazteko neurririk berritzaileena aitatasun-baimena da; baimen horrek hamahiru eguneko iraupena izango du, eta erditze anitza dagoenean, hamahiru egun horiek beste bi egun gehiago luzatuko dira, seme edo alaba bakoitzeko, bigarretetik aurrera. Aitaren eskubidea da, banakakoa eta eskusiboa, aitortzen dena aitatasuna biologikoa denean nahiz adopzioa eta familia-harrera dagoenean. Gaur egungo amatasun-baimenari begira ere hobekuntzak egin dira, baimen horren iraupena bi astez luzatu baita, semea edo alaba desgaia denenean; luzatze hori gurasoetarik edonork baliatu ahal izango du.

Hobekuntza horiek egin dira, berebat, langile autonomoei eta Gizarte Segurantzako beste araubide berezi batzuetako langileei begira.

Legezko zaintzarengatik lanaldia murriztearen inguruan, batetik, adingabearen gehieneko adinari dagokionez, luzatu egin da

seis a ocho años, y se reduce, por otra, a un octavo de la jornada el límite mínimo de dicha reducción. También se reduce a cuatro meses la duración mínima de la excedencia voluntaria y se amplía de uno a dos años la duración máxima de la excedencia para el cuidado de familiares. Se reconoce la posibilidad de que tanto la excedencia por cuidado de hijo o hija como la de por cuidado de familiares puedan disfrutarse de forma fraccionada.

Asimismo, se adaptan las infracciones y sanciones y los mecanismos de control de los incumplimientos en materia de no discriminación, y se refuerza el papel de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social. Es particularmente novedosa, en este ámbito, la posibilidad de conmutar sanciones accesorias por el establecimiento de Planes de Igualdad.

Las modificaciones en materia laboral comportan la introducción de algunas novedades en el ámbito de Seguridad Social, recogidas en las disposiciones adicionales de la Ley. Entre ellas deben destacarse especialmente la flexibilización de los requisitos de cotización previa para el acceso a la prestación de maternidad, el reconocimiento de un nuevo subsidio por la misma causa para trabajadoras que no acrediten dichos requisitos o la creación de la prestación económica por paternidad.

El Título V, en su Capítulo I regula el principio de igualdad en el empleo público, estableciéndose los criterios generales de actuación a favor de la igualdad para el conjunto de las Administraciones públicas y, en su Capítulo II, la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los nombramientos de órganos directivos

murrizketarako eskubidea ematen duen adina, sei urtetik zortzi urtera igaroz, eta, bestetik, murrizketa horren gutxieneko muga murriztu da, lanaldiaren zortzirenera. Halaber, borondatezko eszedentziaren gutxieneko iraupena lau hilabetera murriztu da, eta bi urtetik lau urtera igo ahaideak zaintzeko eszedentziaren gehieneko iraupena. Semea edo alaba zaintzearen ondoriozko eszedentzia edo ahaideak zaintzearen ondoriozkoa zatika izateko aukera aitortu da.

Era berean, bereizkeriarik ezaren gaiaren inguruko arau-hausteak nahiz zehapenak eta kontrol-mekanismoak egokitu dira, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren egitekoa indartu da. Esparru horretan, erabat berritzailea da, zehapen erantsien orde berdintasun-planak ezartzeko aukera.

Lan-arloko aldarazpenek berrikuntza batzuk eragin dituzte Gizarte Segurantzaren arloan, legearen xedapen gehigarrietan jaso direnak. Berrikuntza horien artean bereziki nabarmendu behar dira, dela amatasunaren ondoriozko prestazioa jaso ahal izateko aurretiazko kotizazio-betekizunak malgutzea, betekizun horiek egiaztatzen ez dituzten emakume langileentzat, arrazoi berberean oinarrituta, dela sorospen berri bat aitortzea, dela aitatasunaren ondoriozko prestazio ekonomikoa sortzea.

V. tituluaren I. kapituluaren arautu da berdintasun-printzipioa enplegu publikoari begira, berdintasunaren alde jarduteko irizpide orokorrak ezarri Administrazio publiko guztientzako. Bestalde, II. kapituluaren emakumeen eta gizonen presentzia orekatua arautu da, Estatuko Administrazio Orokorreko zuzendaritza-organismoetarako

de la Administración General del Estado, que se aplica también a los órganos de selección y valoración del personal y en las designaciones de miembros de órganos colegiados, comités y consejos de administración de empresas en cuya capital participe dicha Administración. El Capítulo III de este Título se dedica a las medidas de igualdad en el empleo en el ámbito de la Administración General del Estado, en sentido análogo a lo previsto para las relaciones de trabajo en el sector privado, y con la previsión específica del mandato de aprobación de un protocolo de actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo.

Los Capítulos IV y V regulan, de forma específica, el respeto del principio de igualdad en las Fuerzas Armadas y en las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado.

El Título VI de la Ley está dedicado a la igualdad de trato en el acceso a bienes y servicios, con especial referencia a los seguros.

El Título VII contempla la realización voluntaria de acciones de responsabilidad social por las empresas en materia de igualdad, que pueden ser también objeto de concierto con la representación de los trabajadores y trabajadoras, las organizaciones de consumidores, las asociaciones de defensa de la igualdad o los organismos de igualdad.

Específicamente, se regula el uso de estas acciones con fines publicitarios.

En este Título, y en el marco de la responsabilidad social corporativa, se ha incluido el fomento de la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los consejos de administración de las sociedades mercantiles, concediendo para ello un plazo razonable. Es finalidad de esta medida que el criterio prevalente en la incorporación de

izendapenei dagokienez; presentzia orekatu hori izan behar da, baita ere, langileak hautatu eta baloratzeko organoei dagokionez eta kide anitzeko organoetako, komiteetako eta Administrazioak zein enpresetako kapitalean parte hartu eta enpresa horietako administrazio-kontseiluetako kideak izendatzeari dagokienez. Titulu horretako III. kapituluak enpleguko berdintasun-neurriez dihardu, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, sektore pribatuko lan-harremanei begira ezarritakoaren ildo beretik; eta, bereziki, agindu da sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurka jarduteko protokoloa onestea.

IV eta V. kapituluek modu berezian arautu dute berdintasun-printzipioarekiko errespetua Indar Armatuetan eta estatuko segurtasun-indar eta -kidegoetan.

Legearen VI. tituluak tratu-berdintasunaz dihardu, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean, aseguruai aipamen berezia eginez.

VII. tituluak jaso du enpresek gizarte-erantzukizuneko ekintzak borondatez gauzatzeko aukera berdintasun-arloan; halaber, halako ekintzak hitzartu ahal dira langileen ordezkariekin, kontsumitzaileen erakundeekin, berdintasuna defendatzeko elkarteekin edo berdintasun-antolakundeekin. Bereziki, ekintza horien erabilera publizitate-helburuekin arautu da.

Titulu horretan, eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren esparruan, ezarri da merkataritzako sozietateetako administrazio-kontseiluetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua suspertu behar dela, eta horretarako arrazoizko epea eman da. Neurri horren xedea da kontseilariak sartzeko irizpide nagusia izatea

consejeros sea el talento y el rendimiento profesional, ya que, para que el proceso esté presidido por el criterio de imparcialidad, el sexo no debe constituir un obstáculo como factor de elección.

El Título VIII de la Ley establece una serie de disposiciones organizativas, con la creación de una Comisión Interministerial de Igualdad entre mujeres y hombres y de las Unidades de Igualdad en cada Ministerio. Junto a lo anterior, la Ley constituye un Consejo de participación de la mujer, como órgano colegiado que ha de servir de cauce para la participación institucional en estas materias.

Como se expuso anteriormente, las disposiciones adicionales recogen las diversas modificaciones de preceptos de Leyes vigentes necesarias para su acomodación a las exigencias y previsiones derivadas de la presente Ley. Junto a estas modificaciones del ordenamiento, se incluyen también regulaciones específicas para definir el principio de composición o presencia equilibrada, crear un fondo en materia de sociedad de la información, nuevos supuestos de nulidad de determinadas extinciones de la relación laboral, designar al Instituto de la Mujer a efectos de las Directivas objeto de incorporación.

Las disposiciones transitorias establecen el régimen aplicable temporalmente a determinados aspectos de la Ley, como los relativos a nombramientos y procedimientos, medidas preventivas del acoso en la Administración General del Estado, el distintivo empresarial en materia de igualdad, las tablas de mortalidad y supervivencia, los nuevos derechos de maternidad y paternidad, la composición equilibrada de las listas

lanbide-talentua eta -etekina; izan ere, prozesuan inpartzialtasunaren irizpidea nagusitzeko, sexua ez da oztopoa izan behar hautatze-inguruabar gisa.

Legearen VIII. tituluak antolaketari buruzko xedapenak jaso ditu, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren Ministerio Arteko Batzordea eta ministerio bakoitzean berdintasun-unitateak eratuz. Horrez landa, legeak emakumearen partaidetza-kontseilua eratu du; organo hori kide anitzekoa izango da, gai horietan instituzio-partaidetzarako bidea izanik.

Arestian azaldu bezala, xedapen gehigarriek jaso dituzte indarrean dauden legeetako manuen aldarazpen desberdinak, aldarazpenok beharrezkoak diren heinean, manu horiek lege honek eratorritako eskakizun eta xedapenetara egokitu daitezten. Antolamenduaren aldarazpen horiekin batera, arauketa bereziak ere jaso dira, osaera edo presentzia orekatuaren printzipioa definitzeko; informazio-gizartearen arloan funts bat sortzeko; deuseztasun-kasu berriak ezartzeko, lan-harremanen zenbait azkentzeri begira; Emakumearen Institutua izendatzeko, transposizioa behar duten zuzentarauen ondoretarako.

Xedapen iragankorrek ezarri dute legearen zenbait alderi behin-behinean aplikatu beharreko araubidea; alde horien artean daude izendapenak eta prozedurak, jazarpenaren prebentzio-neurriak Estatuko Administrazio Orokorrean, berdintasun-arloko enpresa-bereizgarria, hilkortasunaren eta bizirik irautearen taulak, amatasunaren eta aitatasunaren ondoriozko eskubide berriak, hauteskunde-zerrenden osaera

electorales, así como a la negociación de nuevos convenios colectivos.

Las disposiciones finales se refieren a la naturaleza de la Ley, a su fundamento constitucional y a su relación con el ordenamiento comunitario, habilitan para el desarrollo reglamentario, establecen las fechas de su entrada en vigor y un mandato de evaluación de los resultados de la negociación colectiva en materia de igualdad.

## **TÍTULO PRELIMINAR**

### **Objeto y ámbito de la Ley**

#### **Artículo 1. Objeto de la Ley.**

1. Las mujeres y los hombres son iguales en dignidad humana, e iguales en derechos y deberes. Esta Ley tiene por objeto hacer efectivo el derecho de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, en particular mediante la eliminación de la discriminación de la mujer, sea cual fuere su circunstancia o condición, en cualesquiera de los ámbitos de la vida y, singularmente, en las esferas política, civil, laboral, económica, social y cultural para, en el desarrollo de los artículos 9.2 y 14 de la Constitución, alcanzar una sociedad más democrática, más justa y más solidaria.

2. A estos efectos, la Ley establece principios de actuación de los Poderes Públicos, regula derechos y deberes de las personas físicas y jurídicas, tanto públicas como privadas, y prevé medidas destinadas a eliminar y corregir en los sectores público y privado, toda forma de discriminación por razón de sexo.

#### **Artículo 2. Ámbito de aplicación.**

1. Todas las personas gozarán de los derechos derivados del principio de

orekatua. Halaber, xedapen iragankorrek ezarri dute hitzarmen kolektibo berrien negoziazioari behin-behinean aplikatu beharreko araubidea.

Azken xedapenek legearen izaera, legearen konstituzio-oinarria eta legeak Europako Erkidegoko antolamenduarekin dituen harremanak aipatzen dituzte, erregelamendu bidezko garapenerako gaitzen dute, legea indarrean jartzeko datak ezartzen dituzte eta berdintasun-arloan negoziazio kolektiboaren emaitzak ebaluatzeko agindua ezarri dute.

## **ATARIKO TITULUA**

### **Legearen xedea eta esparrua**

#### **1. artikulua. Legearen xedea.**

1. Emakumeak eta gizonak berdinak dira giza duintasunari begira, eta berdinak dira eskubide eta betebeharrei begira. Legearen xedea da tratu- eta aukera-berdintasunaren eskubidea eragingarri egitea emakumeen eta gizonen artean, batez ere, emakumearen bereizkeria ezabatuz, emakumearen inguruabarrak eta egoera gorabehera, bizitzako edozein esparrutan, eta, bereziki, politika-, lan-ekonomia-, gizarte-, nahiz kultura-esparruetan eta esparru zibilean, Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua garatuz, gizarte demokratikoago, zuzenago eta solidarioagoa lortzeko.

2. Ondore horietarako, legeak botere publikoen jardute-printzipioak ezarri ditu, pertsona fisiko eta juridikoen eskubide eta eginbeharrak arautu ditu, azken horiek publikoak edo pribatuak diren kontuan hartu gabe, eta sektore publiko eta pribatuetan sexuan oinarritutako bereizkeria era guztiak ezabatu eta zuzentzeko neurriak jaso ditu.

#### **2. artikulua. Aplikazio-esparrua.**

1. Pertsona guztiek izango dituzte tratu-berdintasunaren printzipioak eta



igualdad de trato y de la prohibición de discriminación por razón de sexo.

2. Las obligaciones establecidas en esta Ley serán de aplicación a toda persona, física o jurídica, que se encuentre o actúe en territorio español, cualquiera que fuese su nacionalidad, domicilio o residencia.

## **TÍTULO PRIMERO**

### **El principio de igualdad y la tutela contra la discriminación**

#### **Artículo 3. El principio de igualdad de trato entre mujeres y hombres.**

El principio de igualdad de trato entre mujeres y hombres supone la ausencia de toda discriminación, directa o indirecta, por razón de sexo, y, especialmente, las derivadas de la maternidad, la asunción de obligaciones familiares y el estado civil.

#### **Artículo 4. Integración del principio de igualdad en la interpretación y aplicación de las normas.**

La igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres es un principio informador del ordenamiento jurídico y, como tal, se integrará y observará en la interpretación y aplicación de las normas jurídicas.

#### **Artículo 5. Igualdad de trato y de oportunidades en el acceso al empleo, en la formación y en la promoción profesionales, y en las condiciones de trabajo.**

El principio de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, aplicable en el ámbito del empleo privado y en el del empleo público, se garantizará, en los términos previstos en la normativa aplicable, en el acceso al empleo, incluso al trabajo por cuenta propia, en la formación

sexuan oinarritutako bereizkeriaren debekuak ondorioztatutako eskubideak.

2. Lege honetan ezarritako betebeharrak Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen pertsona orori aplikatuko zaio, pertsona hori fisikoa nahiz juridikoa izan, eta horren naziotasuna, egoitza edo bizilekua edozein dela.

## **LEHENENGO TITULUA**

### **Berdintasun-printzipioa eta bereizkeriaren aurkako babesa**

#### **3. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa.**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak berarekin dakar sexuan oinarritutako bereizkeriarik eza, bereizkeria hori zuzenekoa nahiz zeharkakoa izatea gorabehera, eta, bereziki, amatasun-egoeraren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoa.

#### **4. artikulua. Berdintasun-printzipioa arauen interpretazio eta aplikaziora barneratzea.**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu-eta aukera-berdintasuna antolamendu juridikoa eratzen duen printzipioa da; hori dela eta, arau juridikoen interpretazio eta aplikaziora bildu eta kontuan hartzekoa izango da.

#### **5. artikulua. Tratu- eta aukera-berdintasuna, dela enplegua lortzean, prestakuntzan eta lanbide-aurrerakuntzan, dela lan-baldintzetan.**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu-eta aukera-berdintasunaren printzipioa, enplegu pribatuaren nahiz enplegu publikoaren esparruan aplikagarri dena, bermatuko da, arautegi aplikagarrian ezarritakoaren arabera, enplegua lortzeko orduan, baita beregaineko lanaren kasuan ere; lanbide-

profesional, en la promoción profesional, en las condiciones de trabajo, incluidas las retributivas y las de despido, y en la afiliación y participación en las organizaciones sindicales y empresariales, o en cualquier organización cuyos miembros ejerzan una profesión concreta, incluidas las prestaciones concedidas por las mismas.

No constituirá discriminación en el acceso al empleo, incluida la formación necesaria, una diferencia de trato basada en una característica relacionada con el sexo cuando, debido a la naturaleza de las actividades profesionales concretas o al contexto en el que se lleven a cabo, dicha característica constituya un requisito profesional esencial y determinante, siempre y cuando el objetivo sea legítimo y el requisito proporcionado.

#### **Artículo 6. Discriminación directa e indirecta.**

1. Se considera discriminación directa por razón de sexo la situación en que se encuentra una persona que sea, haya sido o pudiera ser tratada, en atención a su sexo, de manera menos favorable que otra en situación comparable.
2. Se considera discriminación indirecta por razón de sexo la situación en que una disposición, criterio o práctica aparentemente neutros pone a personas de un sexo en desventaja particular con respecto a personas del otro, salvo que dicha disposición, criterio o práctica puedan justificarse objetivamente en atención a una finalidad legítima y que los medios para alcanzar dicha finalidad sean necesarios y adecuados.
3. En cualquier caso, se considera discriminatoria toda orden de discriminar, directa o indirectamente,

prestakuntzan, lanbide-aurrerakuntzan, lan-baldintzetan, horien artean direla ordainsarien eta kaleratzeen ingurukoak; eta sindikatuen nahiz enpresaburuen erakundeetan afiliatu eta parte hartzean, edo beste edozein erakundetan, baldin eta erakunde horietako kideek lanbide jakin bat gauzatzen badute, baita zerbitzua kideek eurek ematen dutenean ere.

Enplegua lortzeari dagokionez, horretara biltzen dela behar besteko prestakuntza lortzea ere, ez da bereizkeria izango, sexuarekin zerikusia duen ezaugarria, baldin eta, kasuan kasuko lanbide-jardueraren izaera edo jarduera hori gauzatzeko ingurua dela bide, ezaugarri hori oinarrizkoa eta erabakigarria bada lanbide-betekizun gisa. Horrez gain, tratu-berdintasunaren xedea legitimoa izan beharko da, eta lanbide-betekizuna proportzionala.

#### **6. artikulua. Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria.**

1. Sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeria da, antzeko egoera batean, sexuaren ondorioz, pertsona batek, beste batekin alderatuta, tratu ez hain mesedegarria jasatea, jasan izana edo jasateko arriskua izatea.
2. Sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria da, itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsoneri begira, non xedapen, irizpide edo eginera horiek modu objektiboan justifikatzen ez diren, xede legitimo batekin, betiere, xede horiek lortzeko bideak beharrezkoak eta egokiak izanda.
3. Nolanahi ere, bereizkeriatzat joko da zuzeneko nahiz zeharkako bereizkeria egiteko agindu oro, sexuan

por razón de sexo.

### **Artículo 7. Acoso sexual y acoso por razón de sexo.**

1. Sin perjuicio de lo establecido en el Código Penal, a los efectos de esta Ley constituye acoso sexual cualquier comportamiento, verbal o físico, de naturaleza sexual que tenga el propósito o produzca el efecto de atentar contra la dignidad de una persona, en particular cuando se crea un entorno intimidatorio, degradante u ofensivo.

2. Constituye acoso por razón de sexo cualquier comportamiento realizado en función del sexo de una persona, con el propósito o el efecto de atentar contra su dignidad y de crear un entorno intimidatorio, degradante u ofensivo.

3. Se considerarán en todo caso discriminatorios el acoso sexual y el acoso por razón de sexo.

4. El condicionamiento de un derecho o de una expectativa de derecho a la aceptación de una situación constitutiva de acoso sexual o de acoso por razón de sexo se considerará también acto de discriminación por razón de sexo.

### **Artículo 8. Discriminación por embarazo o maternidad.**

Constituye discriminación directa por razón de sexo todo trato desfavorable a las mujeres relacionado con el embarazo o la maternidad.

### **Artículo 9. Indemnidad frente a represalias.**

También se considerará discriminación por razón de sexo cualquier trato adverso o efecto negativo que se produzca en una persona como consecuencia de la presentación por su parte de queja, reclamación, denuncia,

oinarritzeagatik.

### **7. artikulua. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.**

1. Zigor-kodean ezarritakoari kalterik egin gabe, lege honen ondoretarako, sexu-jazarpena da sexu-izaerako jokabide bat sortzea, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere, larderiakoa, apalesgarria edo ofentsakoa den ingurua sortzen denean.

conciliación de la vida personal, familiar y profesional serán de aplicación en las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, adaptándose, en su caso, a las peculiaridades de las funciones que tienen encomendadas, en los términos establecidos por su normativa específica.

## **TÍTULO VI**

### **Igualdad de trato en el acceso a bienes y servicios y su suministro**

#### **Artículo 69. Igualdad de trato en el acceso a bienes y servicios.**

1. Todas las personas físicas o jurídicas que, en el sector público o en el privado, suministren bienes o servicios disponibles para el público, ofrecidos fuera del ámbito de la vida privada y familiar, estarán obligadas, en sus actividades y en las transacciones consiguientes, al cumplimiento del principio de igualdad de trato entre mujeres y hombres, evitando discriminaciones, directas o indirectas, por razón de sexo.

2. Lo previsto en el apartado anterior no afecta a la libertad de contratación, incluida la libertad de la persona de elegir a la otra parte contratante, siempre y cuando dicha elección no venga determinada por su sexo.

3. No obstante lo dispuesto en los apartados anteriores, serán admisibles las diferencias de trato en el acceso a bienes y servicios cuando estén justificadas por un propósito legítimo y los medios para lograrlo sean adecuados y necesarios.

#### **Artículo 70. Protección en situación de embarazo.**

En el acceso a bienes y servicios, ningún contratante podrá indagar sobre la situación de embarazo de una mujer

bizitza uztartzeari buruzkoak, estatuko segurtasun-indar eta -kidegoetan aplikatuko dira, hala denean, eratzikita dituzten eginkizunetara egokituta, horien arautegi berezian ezarritakoaren arabera.

## **VI. TITULUA**

### **Tratu-berdintasuna ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta horietaz hornitzean**

#### **69. artikulua. Tratu-berdintasuna ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean.**

1. Sektore publikoan nahiz pribatuan, jendaurreko ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiek, ondasun eta zerbitzu horiek norberaren eta familiaren bizitza-esparrutik kanpo eskaintzen direnean, betebeharra izango dute, euren jardueretan eta horien ondoriozko transakzioetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa betetzeko, zuzenean edo zeharka, sexuan oinarritutako bereizkeriak saihestuz.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez dio kalterik egingo kontratazio-askatasunari, ezta pertsonak duen askatasunari ere, beste kontratugilea aukeratzeko, betiere, aukeraketa hori ez badu sexuak baldintzatzen.

3. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean tratu-bereizketak onargarriak izango dira, legítimo den asmoa dela bide, eta asmo hori lortzeko bideak egokiak eta beharrezkoak direnean.

#### **70. artikulua. Babesa haurdunaldi-egoeran.**

Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean, kontratugileek ezin izango dute aztertu halakoak eskatu dituen emakume baten

demandante de los mismos, salvo por razones de protección de su salud.

#### **Artículo 71. Factores actuariales.**

1. Se prohíbe la celebración de contratos de seguros o de servicios financieros afines en los que, al considerar el sexo como factor de cálculo de primas y prestaciones, se generen diferencias en las primas y prestaciones de las personas aseguradas.

No obstante, reglamentariamente, se podrán fijar los supuestos en los que sea admisible determinar diferencias proporcionadas de las primas y prestaciones de las personas consideradas individualmente, cuando el sexo constituya un factor determinante de la evaluación del riesgo a partir de datos actuariales y estadísticos pertinentes y fiables.

2. Los costes relacionados con el embarazo y el parto no justificarán diferencias en las primas y prestaciones de las personas consideradas individualmente, sin que puedan autorizarse diferencias al respecto.

#### **Artículo 72. Consecuencias del incumplimiento de las prohibiciones.**

1. Sin perjuicio de otras acciones y derechos contemplados en la legislación civil y mercantil, la persona que, en el ámbito de aplicación del artículo 69, sufra una conducta discriminatoria, tendrá derecho a indemnización por los daños y perjuicios sufridos.

2. En el ámbito de los contratos de seguros o de servicios financieros afines, y sin perjuicio de lo previsto en el artículo 10 de esta Ley, el incumplimiento de la prohibición contenida en el artículo 71 otorgará al contratante perjudicado el derecho a

haurdunaldi-egoera, salbu eta emakume horren osasuna babesteko arrazoiak daudenean.

#### **71. artikulua. Faktore aktuarialak.**

1. Debekatuta dago aseguru-kontratuak edo antzeko finantza-zerbitzuen kontratuak egitea, baldin eta, halakoetan, sexua prima eta prestazioak kalkulatzeko faktoretzat hartzeagatik, desberdintasunak sortzen badira aseguraturako pertsonen prima eta prestazioetan.

Hala ere, erregelamendu bidez, zehaztu ahal izango dira gizabanakoen prima eta prestazioen artean desberdintasun proportzionalak ezartzea onartzen dituzten egoerak, sexua arriskua ebaluatzeko inguruabar erabakigarria denean, datu aktuarial eta estatistiko egoki eta zehatzen arabera.

2. Haurdunaldiarekin eta amatasunarekin zerikusia duten kostuek ez dute eragingo desberdintasunik gizabanakoen prima nahiz prestazioetan, eta horren inguruan ezin izango dira desberdintasunak baimendu.

#### **72. artikulua. Debekuak ez betetzearen ondorioak.**

1. Legeria zibilean eta merkataritzako legerian jasotako beste akzio eta eskubide batzuei kalterik egin gabe, 69. artikuluaaren aplikazio-esparruan bereizkeriazko jokabidea jasaten duen pertsonak eskubidea izango du galeren ondoriozko kalte-ordaina jasotzeko.

2. Aseguru-kontratuen eta antzeko finantza-zerbitzuei buruzko kontratuen esparruan, eta lege honen 10. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, 71. artikuluan jasotako debekua ez betetzeak eskubidea sortuko du kontratugile kaltetunari begira, bere

reclamar la asimilación de sus primas y prestaciones a las del sexo más beneficiado, manteniéndose en los restantes extremos la validez y eficacia del contrato.

## TÍTULO VII

### **La igualdad en la responsabilidad social de las empresas**

#### **Artículo 73. Acciones de responsabilidad social de las empresas en materia de igualdad.**

Las empresas podrán asumir la realización voluntaria de acciones de responsabilidad social, consistentes en medidas económicas, comerciales, laborales, asistenciales o de otra naturaleza, destinadas a promover condiciones de igualdad entre las mujeres y los hombres en el seno de la empresa o en su entorno social.

La realización de estas acciones podrá ser concertada con la representación de los trabajadores y las trabajadoras, las organizaciones de consumidores y consumidoras y usuarios y usuarias, las asociaciones cuyo fin primordial sea la defensa de la igualdad de trato entre mujeres y hombres y los Organismos de Igualdad.

Se informará a los representantes de los trabajadores de las acciones que no se concierten con los mismos.

A las decisiones empresariales y acuerdos colectivos relativos a medidas laborales les será de aplicación la normativa laboral.

#### **Artículo 74. Publicidad de las acciones de responsabilidad social en materia de igualdad.**

Las empresas podrán hacer uso publicitario de sus acciones de responsabilidad en materia de igualdad, de acuerdo con las condiciones

primak eta prestazioak berdinetako onura gehien zein sexutako pertsonak izan eta pertsona horien prima eta prestazioekin; gainerakoan, kontratuaren baliagarritasun eta eragingarritasunari eutsiko zaio.

## VII. TITULUA

### **Berdintasuna enpresen gizarte-erantzukizunean**

#### **73. artikulua. Enpresen gizarte-erantzukizuneko ekintzak berdintasun-arloan.**

Enpresek erabaki ahal izango dute gizarte-erantzukizuneko ekintzak borondatez gauzatzea; ekintza horiek ekonomia-, merkataritza- eta laguntza-izaerako neurrietan edo beste izaera bateko neurrietan oinarrituko dira, xede izango dutenek emakumeen eta gizonen artean berdintasun-baldintzak sustatzea, enpresan edo enpresaren gizarte-ingurunean.

Halako ekintzak gauzatzea hitzartu ahal izango dituzte sexu bateko zein besteko langileen ordezkariekin, sexu bateko zein besteko kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeekin, helburu nagusizat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzea duten elkarteekin eta berdintasun-antolakundeekin.

Langileen ordezkariari eurekin hitzartzen ez diren ekintzen berri emango zaie.

Lan-izaerako neurriak direla eta, enpresaburuek hartzen dituzten erabakiei eta egiten diren akordio kolektiboari lan-arautegia aplikatuko zaie.

#### **74. artikulua. Berdintasun-arloko gizarte-erantzukizuneko ekintzen publizitatea.**

Enpresek berdintasun-arloan dituzten erantzukizun-ekintzen publizitatea egin ahal izango dute, publizitateari buruzko legeria orokorreko baldintzekin bat

establecidas en la legislación general de publicidad.

El Instituto de la Mujer, u órganos equivalentes de las Comunidades Autónomas, estarán legitimados para ejercer la acción de cesación cuando consideren que pudiera haberse incurrido en supuestos de publicidad engañosa.

#### **Artículo 75. Participación de las mujeres en los Consejos de administración de las sociedades mercantiles.**

Las sociedades obligadas a presentar cuenta de pérdidas y ganancias no abreviada procurarán incluir en su Consejo de administración un número de mujeres que permita alcanzar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en un plazo de ocho años a partir de la entrada en vigor de esta Ley.

Lo previsto en el párrafo anterior se tendrá en cuenta para los nombramientos que se realicen a medida que venza el mandato de los consejeros designados antes de la entrada en vigor de esta Ley.

### **TÍTULO VIII**

#### **Disposiciones organizativas**

#### **Artículo 76. Comisión Interministerial de Igualdad entre mujeres y hombres.**

La Comisión Interministerial de Igualdad entre mujeres y hombres es el órgano colegiado responsable de la coordinación de las políticas y medidas adoptadas por los departamentos ministeriales con la finalidad de garantizar el derecho a la igualdad entre mujeres y hombres y promover su efectividad.

Su composición y funcionamiento se determinarán reglamentariamente.

#### **Artículo 77. Unidades de igualdad.**

etorriz.

Emakumearen Institutuak, edo autonomia erkidegoetako organo baliokideek, legitimazioa izango dute bukarazte-akzioa egikaritzeko, uste dutenean engainuzko publizitatea egin dela.

#### **75. artikulua. Emakumeen partaidetza merkataritzako sozietateetako administrazio-kontseiluetan.**

Galera-irabazien kontu ez-laburtua aurkezteko betebeharra duten sozietateek ahaleginak egingo dituzte administrazio-kontseiluan behar beste emakume sartzeko, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortu ahal izateko, lege hau indarrean jarri eta zortzi urteko epean.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa kontuan hartuko da lege hau indarrean jarri aurretik izendatutako kontseilarien agintaldia amaitu ahala egin beharreko izendapenei begira.

### **VIII. TITULUA**

#### **Antolaketari buruzko xedapenak**

#### **76. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren Ministerio Arteko Batzordea.**

Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren Ministerio Arteko Batzordea kide anitzeko organoa da, ministerio-sailek erabakitako politika eta neurriak koordinatzeko ardura duena, emakumeen eta gizonen artean berdintasunerako eskubidea bermatzeko eta eskubide horren eragingarritasuna sustatzeko helburuarekin.

Horren osaera eta jardunbidea erregelamendu bidez zehaztuko dira.

#### **77. artikulua. Berdintasun-unitateak.**

En todos los Ministerios se encomendará a uno de sus órganos directivos el desarrollo de las funciones relacionadas con el principio de igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito de las materias de su competencia y, en particular, las siguientes:

- a) Recabar la información estadística elaborada por los órganos del Ministerio y asesorar a los mismos en relación con su elaboración.
- b) Elaborar estudios con la finalidad de promover la igualdad entre mujeres y hombres en las áreas de actividad del Departamento.
- c) Asesorar a los órganos competentes del Departamento en la elaboración del informe sobre impacto por razón de género.
- d) Fomentar el conocimiento por el personal del Departamento del alcance y significado del principio de igualdad mediante la formulación de propuestas de acciones formativas.
- e) Velar por el cumplimiento de esta Ley y por la aplicación efectiva del principio de igualdad.

#### **Artículo 78. Consejo de Participación de la Mujer.**

1. Se crea el Consejo de Participación de la Mujer, como órgano colegiado de consulta y asesoramiento, con el fin esencial de servir de cauce para la participación de las mujeres en la consecución efectiva del principio de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, y la lucha contra la discriminación por razón de sexo.

2. Reglamentariamente, se establecerán su régimen de funcionamiento, competencias y composición, garantizándose, en todo

Ministerio guztietan zuzendaritza-organoetako bati eratzikiko zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioarekin zerikusia duten eginkizunak garatzeko ardura, kasuan kasuko ministerioaren eskumeneko gaien esparruan eta, bereziki, honako eginkizun hauek:

- a) Ministerioko organoek prestatutako estatistika-informazioa lortzea eta horiei aholkuak ematea estatistika horiek prestatzeari dagokionez.
- b) Azterketak egitea saileko jardueraren esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin.
- c) Saileko organo eskudunak aholkatzea, txostena egin behar dutenean, generoan oinarritutako eraginari buruz.
- d) Saileko langileen artean berdintasun-printzipioaren norainokoaren eta esanahiaren gaineko ezagutza suspertzea, prestakuntza-ekintzei buruzko proposamenak eginez.
- e) Lege hau betetzen dela eta berdintasun-printzipioa eragingarritasunez aplikatzen dela zaintzea.

#### **78. artikulua. Emakumearen partaidetza-kontseilua.**

1. Emakumearen partaidetza-kontseilua sortu da, kontsultarako eta aholkularitzako kide anitzeko organo gisa, emakumeen partaidetzarako bidea izan dadin, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa eragingarritasunez lortzeari dagokionez, eta sexuan oinarritutako bereizkeriaren aurkako borrokari dagokionez.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira beraren jardunbide-araubidea, eskumenak eta osaera, edozein kasutan bermatuz Administrazio publiko



caso, la participación del conjunto de las Administraciones públicas y de las asociaciones y organizaciones de mujeres de ámbito estatal.

## **DISPOSICIONES ADICIONALES**

### **1ª Presencia o composición equilibrada.**

A los efectos de esta Ley, se entenderá por composición equilibrada la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el conjunto a que se refiera, las personas de cada sexo no superen el 60 por 100 ni sean menos del 40 por 100.

### **2ª Modificación de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General.**

Se modifica la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los siguientes términos:

Uno. Se añade un nuevo artículo 44bis, redactado en los siguientes términos:

«Artículo 44bis. 1. Las candidaturas que se presenten para las elecciones de diputados al Congreso, municipales y de miembros de los consejos insulares y de los cabildos insulares canarios en los términos previstos en esta Ley, diputados al Parlamento Europeo y miembros de las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas deberán tener una composición equilibrada de mujeres y hombres, de forma que en el conjunto de la lista los candidatos de cada uno de los sexos supongan como mínimo el 40 por 100. Cuando el número de puestos a cubrir sea inferior a cinco, la proporción de mujeres y hombres será lo más cercana posible al equilibrio numérico.

guztien eta estatu-mailako emakumeen elkarte nahiz erakundeen partaidetza.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **1. Presentzia edo osaera orekatua.**

Lege honen ondoreetarako, osaera orekatu gisa ulertuko da emakumeen eta gizonen presentzia, noiz eta, kasu bakoitzean erreferentziatzat hartzen den osotasunean, sexu jakin bateko pertsonak ez direnean 100eko 60 baino gehiago, ezta 100eko 40 baino gutxiago ere.

### **2. Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorren Lege Organikoa aldaraztea.**

Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldarazi da.

Bat. 44bis artikulua gehitu da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«44bis artikulua.1. Kongresurako diputatuen hauteskundeetarako, udal-hauteskundeetarako eta Kanarietako uharte-kontseiluetako nahiz kabildoetako kideen hauteskundeetarako lege honetan ezarritakoaren arabera aurkezten diren hautagai-zerrendak, eta Europako Parlamenturako diputatuen eta autonomia-erkidekoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetarako aurkezten diren hautagai-zerrendak modu orekatuan osatu beharko dira gizon- eta emakume-kopuruari dagokionez; horrenbestez, zerrenda osoan sexu bereko pertsonak gutxienez 100ko 40 izan beharko dira. Bost postu baino gutxiago bete behar direnean, emakumeen eta gizonen arteko proportzioa ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez.

En las elecciones de miembros de las Asambleas Legislativas de las Comunidades Autónomas, las leyes reguladoras de sus respectivos regímenes electorales podrán establecer medidas que favorezcan una mayor presencia de mujeres en las candidaturas que se presenten a las Elecciones de las citadas Asambleas Legislativas.

2. También se mantendrá la proporción mínima del 40 por 100 en cada tramo de cinco puestos. Cuando el último tramo de la lista no alcance los cinco puestos, la referida proporción de mujeres y hombres en ese tramo será lo más cercana posible al equilibrio numérico, aunque deberá mantenerse en cualquier caso la proporción exigible respecto del conjunto de la lista.

3. A las listas de suplentes se aplicarán las reglas contenidas en los anteriores apartados.

4. Cuando las candidaturas para el Senado se agrupen en listas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 171 de esta Ley, tales listas deberán tener igualmente una composición equilibrada de mujeres y hombres, de forma que la proporción de unas y otros sea lo más cercana posible al equilibrio numérico».

Dos. Se añade un nuevo párrafo al apartado 2 del artículo 187, redactado en los siguientes términos:

«Lo previsto en el artículo 44bis de esta ley no será exigible en las candidaturas que se presenten en los municipios con un número de residentes igual o inferior a 3.000 habitantes.»

Tres. Se añade un nuevo párrafo al apartado 3 del artículo 201, redactado en los siguientes términos:

Autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako kideen hauteskundeetan, kasuan kasuko hauteskunde-araubideei buruzko legeek neurriak ezarri ahal izango dituzte, aipatu legebiltzarretako hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrendetan emakume gehiago izan daitezen ahalbidetzeko.

2. Halaber, 100eko 40ari eutsiko zaio gutxieneko proportzio gisa, bost postutik bost posturako tarte bakoitzean. Zerrendaren azken tartean bost postu baino gutxiago daudenean, tarte horretan, emakumeen eta gizonen artean izan beharreko proportzio hori ahalik orekatuena izango da, batzuen eta besteen kopuruari dagokionez; edozein kasutan, zerrenda osoa kontuan hartzen denean, ezarritako proportzioari eutsi beharko zaio.

3. Ordezkoen zerrendei aurreko paragrafoetan jasotako erregelak aplikatuzko zaizkie.

4. Lege honen 171. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, senaturako hautagai-zerrendak hainbat zerrendetan batzen direnean, zerrenda horiek ere modu orekatuan osatu beharko dira, emakume- eta gizon-kopuruari dagokionez, batzuen eta besteen arteko proportzioa ahalik orekatuena izan dadin, kopuruaren aldetik».

Bi. Lerrokada berria gehitu zaio 187. artikuluko 2. paragrafoari; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du:

«Lege honen 44bis artikuluan ezarritakoa ez da galdatuko 3.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrietan aurkezten diren hautagai-zerrendetan.

Hiru. Lerrokada berria gehitu zaio 201. artikuluko 3. paragrafoari; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du:

«Lo previsto en el artículo 44bis de esta ley no será exigible en las candidaturas que se presenten en las islas con un número de residentes igual o inferior a 5.000 habitantes.»

Cuatro. Se modifica el apartado 2 de la disposición adicional primera, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. En aplicación de las competencias que la Constitución reserva al Estado se aplican también a las elecciones a Asambleas Legislativas de Comunidades Autónomas convocadas por éstas, los siguientes artículos del título primero de esta Ley Orgánica:

1 al 42; 44; 44bis; 45; 46.1, 2, 4, 5, 6 y 8; 47.4; 49; 51.2 y 3; 52; 53; 54; 58; 59; 60; 61; 62; 63; 65; 66; 68; 69; 70.1 y 3; 72; 73; 74; 75; 85; 86.1; 90; 91; 92; 93; 94; 95.3; 96; 103.2; 108.2 y 8; 109 a 119; 125 a 130; 131.2; 132; 135 a 152».

Cinco. Se añade una nueva disposición transitoria séptima, redactada en los siguientes términos:

«En las convocatorias a elecciones municipales que se produzcan antes de 2011, lo previsto en el artículo 44bis solo será exigible en los municipios con un número de residentes superior a 5.000 habitantes, aplicándose a partir del 1 de enero de ese año la cifra de habitantes prevista en el segundo párrafo del apartado 2 del artículo 187 de la presente Ley».

### **3ª. Modificaciones de la Ley Orgánica del Poder Judicial.**

Se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, en los siguientes términos:

Uno. Se añade un último inciso en el apartado 1 del artículo 109, que queda en los siguientes términos:

«Lege honen 44bis artikuluan ezarritakoa ez da galdatuko 5.000 biztanle edo gutxiagoko uharteetan aurkezten diren hautagai-zerrendetan.»

Lau. Lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoa aldarazi da; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«2. Konstituzioak estatuari erreserbatu dizkion eskumenak aplikatzeagatik, autonomia-erkidegoek euren legebiltzarretarako deitutako hauteskundeetan ere aplikatuko dira lege organiko honen lehenengo tituluko hurrengo artikulua:

1.etik 42.erakoak; 44bis; 45; 46.1, 2, 4, 5, 6 eta 8; 47.4; 49; 51.2 eta 3; 52; 53; 54; 58; 59; 60; 61; 62; 63; 65; 66; 68; 69; 70.1 eta 3; 72; 73; 74; 75; 85; 86.1; 90; 91; 92; 93; 94; 95.3; 96; 103.2; 108.2 eta 8; 109etik 119.erakoak; 125etik 130erakoak; 131.2; 132; 135etik 152.erakoak».

Bost. Zazpigarren xedapen iragankorra gehitu da; xedapen horrek hurrengo idazkera izango du:

«2011 baino lehenago, udal-hauteskundeetarako egiten diren deialdietan, 44bis artikuluan ezarritakoa galdatuko da gutxienez 5.000 biztanle dituzten udalerrietan bakarrik; 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege honen 187. artikulua 2. paragrafoko bigarren lerrokadan ezarritako biztanle-kopurua aplikatuko da».

### **3. Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldarazpenak.**

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldarazi da, hurrengoaren arabera:

Bat. 109. artikulua 1 paragrafoari azken tartekadura gehitu zaio; tartekadura horrek hurrengo idazkera izango du.

«1. El Consejo General del Poder Judicial elevará anualmente a las Cortes Generales una Memoria sobre el estado, funcionamiento y actividades del propio Consejo y de los Juzgados y Tribunales de Justicia. Asimismo, incluirá las necesidades que, a su juicio, existan en materia de personal, instalaciones y de recursos, en general, para el correcto desempeño de las funciones que la Constitución y las leyes asignan al Poder Judicial. Incluirá también un capítulo sobre el impacto de género en el ámbito judicial».

Dos. Se añade un nuevo párrafo, intercalado entre el primero y el segundo, al apartado 3 del artículo 110, con la siguiente redacción:

«En todo caso, se elaborará un informe previo de impacto de género».

Tres. Se añade, en el artículo 122.1, después de «Comisión de Calificación», la expresión «Comisión de Igualdad».

Cuatro. Se añade un artículo 136bis que integrará la nueva Sección 7ª del Capítulo IV, Título II, Libro II, rubricada como «De la Comisión de Igualdad», con la siguiente redacción:

«Artículo 136bis. El Pleno del Consejo General del Poder Judicial elegirá anualmente, de entre sus Vocales, por mayoría de tres quintos y atendiendo al principio de presencia equilibrada entre mujeres y hombres, a los componentes de la Comisión de Igualdad, que estará integrada por cinco miembros.

2. La Comisión de Igualdad deberá actuar con la asistencia de todos sus componentes y bajo la presidencia del miembro de la misma que sea elegido por mayoría. En caso de transitoria imposibilidad o ausencia justificada de alguno de los miembros, se procederá a su sustitución por otro Vocal del

«1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak urtero bidaliko die Gorte Nagusiei Kontseiluaren eta epaitegi nahiz auzitegien egoera, jardunbide eta jardueri buruzko oroitidazkia. Era berean, aipatuko ditu bere ustez dauden beharrizanak, langile, instalazio eta baliabideen inguruan, orokorrean, Konstituzioak eta legeek Botere Judizialari eratxiki dizkieten eginkizunak zuzen gauzatzeko. Orobat, esparru judizialean generoaren eragina zelakoa den dioen kapitutulu bat jasoko du».

Bi. 110. artikuluko 3. paragrafoari lerrokada berria gehitu zaio, lehenengo lerrokadaren eta hirugarrenaren artean; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du:

«Edozein kasutan, aurretiaz txosten bat egingo da genero-eraginari buruz».

Hiru. 122.1 artikuluan, «kalifikazio-batzordearen» ondoren, «berdintasun-batzordea» adierazmoldea gehitu da».

Lau. 136bis artikulua gehitu da, eta horrek II. liburuko II tituluko IV. kapituluaren 7. atala osatuko du, «Berdintasun-batzordea» idazpuruarekin; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«136bis artikulua.1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak urtero hautatuko ditu Berdintasun-batzordearen kideak, bere mahaikideen artean, hiru bosteneko gehiengoarekin, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa aintzat hartuta; batzorde hori bost kidek osatuko dute.

2. Berdintasun-batzordeak jardun beharko du bere kide guztiak daudela eta gehiengoarekin hautatutako kidea lehendakaria dela. Kideren baten aldiari ezintasuna edo justifikatutako absentsia badago, kide hori ordeztuko du Kontseiluko beste mahaikide batek; ahal den neurrian, azken hori haren

Consejo, preferentemente del mismo sexo, que será designado por la Comisión Permanente.

3. Corresponderá a la Comisión de Igualdad asesorar al Pleno sobre las medidas necesarias o convenientes para integrar activamente el principio de igualdad entre mujeres y hombres en el ejercicio de las atribuciones del Consejo General del Poder Judicial y, en particular, le corresponderá elaborar los informes previos sobre impacto de género de los reglamentos y mejorar los parámetros de igualdad en la Carrera Judicial».

Cinco. Se modifica el artículo 310, que tendrá la siguiente redacción:

«Todas las pruebas selectivas para el ingreso y la promoción en las Carreras Judicial y Fiscal contemplarán el estudio del principio de igualdad entre mujeres y hombres, incluyendo las medidas contra la violencia de género, y su aplicación con carácter transversal en el ámbito de la función jurisdiccional».

Seis. Se modifica el primer párrafo del apartado e) del artículo 356, que queda redactado como sigue: «e) También tendrán derecho a un período de excedencia, de duración no superior a tres años, para atender al cuidado de un familiar que se encuentre a su cargo, hasta el segundo grado inclusive de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad, no pueda valerse por sí mismo y no desempeñe actividad retribuida».

Siete. Se añade una nueva letra e) en el artículo 348, en los siguientes términos:

«e) Excedencia por razón de violencia

sexu berekoa izango da, eta batzorde iraunkorrak izendatuko du.

3. Berdintasun-batzordeak beharrezkoak edo egoki diren neurrien gainean aholkatuko du Osoko Bilkura, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa modu aktiboan barneratu dadin Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren jardunera; bereziki, Berdintasun-batzordeak gauzatuko ditu erregelamenduei begira alde zuzenetik egin behar diren genero-eraginaren txostenak, eta karrera judizialean berdintasun-parametroak hobetzeko ardura izango du».

Bost. 310. artikulua aldarazi da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«Karrera judizial nahiz fiskalean sartzeko eta aurreratzeko egiten diren hautaketa-proba guztiek ezarriko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa ikasi eta printzipio hori jurisdikzio-eginkizunetan zeharkakotasunez aplikatu beharra; berdintasun-printzipioak bere baitan hartuko ditu genero-indarkeriaren aurkako neurriak».

Sei. 356. artikuluko e) paragrafoa lehen idatz-zatia aldarazi da; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«e) Orobat, eskubidea izango dute hiru urtetik gorako iraupenik ez duen eszedentzia-aldirako, odol bidezko edo ezkontza bidezko bigarren gradurainoko ahaideak zaintzeaz arduratzeko, ahaide horiek euren kontura baliatzeko gaitasunik ez badute, adinarengatik, istripuarengatik, gaixotasunarengatik zein desgaitasunarengatik, eta ordaindutako jarduerarik gauzatzen ez badute».

Zazpi. 348. artikuluari e) paragrafoa gehitu zaio; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«e) Emakumearen aurkako



sobre la mujer».

Ocho. Se modifica el artículo 357, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 357. Cuando un magistrado del Tribunal Supremo solicitara la excedencia voluntaria y le fuere concedida, perderá su condición de tal, salvo en el supuesto previsto en las letras d) y e) del artículo anterior y en el artículo 360bis. En los demás casos quedará integrado en situación de excedencia voluntaria, dentro de la categoría de Magistrado».

Nueve. Se modifica el artículo 358.2 en los siguientes términos:

«2. Se exceptúan de lo previsto en el apartado anterior las excedencias voluntarias para el cuidado de hijos y para atender al cuidado de un familiar a que se refieren los apartados d) y e) del artículo 356, en las que el periodo de permanencia en dichas situaciones será computable a efectos de trienios y derechos pasivos. Durante los dos primeros años se tendrá derecho a la reserva de la plaza en la que se ejerciesen sus funciones y al cómputo de la antigüedad. Transcurrido este periodo, dicha reserva lo será a un puesto en la misma provincia y de igual categoría, debiendo solicitar, en el mes anterior a la finalización del periodo máximo de permanencia en la misma, el reingreso al servicio activo; de no hacerlo, será declarado de oficio en la situación de excedencia voluntaria por interés particular».

Diez. Se añade un nuevo artículo 360bis con la siguiente redacción:

«Artículo 360bis. 1. Las juezas y magistradas víctimas de violencia de género tendrán derecho a solicitar la

indarkeriaren ondoriozko eszedentzia».

Zortzi. 357. artikulua aldarazi da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«357. artikulua. Auzitegi Goreneko magistratu batek borondatezko eszedentzia eskatu eta eszedentzia hori aitortzen zaionean, magistratu-izaera galduko du, salbu eta aurreko artikuluko d) eta e) paragrafoetan eta 360bis artikuluan jasotako kasuak gertatzen direnean. Gainerako kasuetan, borondatezko eszedentzia-egoeran geratuko da, magistratu-kategoriarekin».

Bederatzi. 358.2 artikulua aldarazi da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren salbuespen dira seme-alabak edo ahaideak zaintzeko 356. artikuluko d) eta e) paragrafoek aipatzen dituzten borondatezko eszedentziak; egoera horietan izandako denbora zenbatuko da hirurtekoen eta eskubide pasiboen ondoretarako. Lehenengo bi urteetan eskubidea izango da, euren eginkizunen araberako postua erreserbatzeko eta antzintasuna zenbatzeko. Epe hori igaro ondoren, erreserbatuko da probintzia bereko eta kategoria bereko postua. Eszedentzia-egoeraren gehieneko epea amaitu baino hilabete lehenago eskatu beharko da zerbitzu aktiboan berriro sartzea; eskaera hori egin ezean, ofizioz adieraziko da interes pribatuaren ondorioz dagoela borondatezko eszedentzia-egoera».

Hamar. 360bis artikulua gehitu da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

«360bis artikulua. 1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume epaile eta magistratuek eskubidea

situación de excedencia por razón de violencia sobre la mujer sin necesidad de haber prestado un tiempo mínimo de servicios previos. En esta situación administrativa se podrá permanecer un plazo máximo de tres años.

2. Durante los seis primeros meses tendrán derecho a la reserva del puesto de trabajo que desempeñaran, siendo computable dicho periodo a efectos de ascensos, trienios y derechos pasivos.

Esto no obstante, cuando de las actuaciones de tutela judicial resultase que la efectividad del derecho de protección de la víctima lo exigiere, se podrá prorrogar por periodos de tres meses, con un máximo de dieciocho, el periodo en el que, de acuerdo con el párrafo anterior, se tendrá derecho a la reserva del puesto de trabajo, con idénticos efectos a los señalados en dicho párrafo.

3. Las juezas y magistradas en situación de excedencia por razón de violencia sobre la mujer percibirán, durante los dos primeros meses de esta excedencia, las retribuciones íntegras y, en su caso, las prestaciones familiares por hijo a cargo.

4. El reintegro en el servicio activo de las juezas y magistradas en situación administrativa de excedencia por razón de violencia sobre la mujer de duración no superior a seis meses se producirá en el mismo órgano jurisdiccional respecto del que tenga reserva del puesto de trabajo que desempeñaran con anterioridad; si el periodo de duración de la excedencia es superior a seis meses el reintegro exigirá que las juezas y magistradas participen en todos los concursos que se anuncien para cubrir plazas de su categoría hasta obtener destino. De no hacerlo así, se

izango dute emakumearen aurkako indarkerian oinarritutako eszedentzia-egoera eskatzeko, aldez aurretik denbora jakin batez zerbitzurik eman beharrik gabe. Administrazio-egoera horretan iraun ahal izango da, gehienez ere, hiru urtez.

2. Lehenengo sei hilabetean, eskubidea izango dute euren postua erreserbatzeko; aldi hori zenbatzeko modukoa izango da, maila-igoerei, hirurtekoei eta eskubide pasiboiei dagokienez.

Hori gorabehera, babes judizialerako jardunaren ondorioz, biktimaren babes-eskubidea eragingarria izan dadin, beharrezkoa bada, hiru hilabeteko aldietan luzatu ahal izango da, gehienez ere hemezortzi hilabetera arte, aurreko lerrokadaren arabera, lanpostua erreserbatuta izateko aldia, lerrokada horretan aipatu ondore berberekin.

3. Emakume epaileak eta magistratuak emakumearen aurkako indarkerian oinarritutako eszedentzia-egoeran daudenean, eszedentzia-aldiko lehenengo bi hilabeteetan ordainsari osoak jasoko dituzte, eta, hala denean, semea edo alaba kargura izatearen ondoriozko familia-prestazioak.

4. Emakume epaileen eta magistratuen administrazio-egoera emakumearen aurkako indarkerian oinarritutako eszedentzia denean, eszedentzia hori sei hilabetetik beherakoa bada, epaile eta magistratu horiek zerbitzu aktiboan berriro sartuko dira, aldez aurretik zein postu izan eta postu hori erreserbatuta duten jurisdikzio-organo berean; eszedentzia-aldia sei hilabetetik gorakoa bada, zerbitzu aktiboan berriro sartzeko beharrezkoa izango da epaile eta magistratu horiek aurkeztea euren kategoriako postuak zein izan eta postu horiei begira iragartzen diren konkurtso

les declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular».

Once. Se suprime el artículo 370.

Doce. Se modifica el apartado 5 del artículo 373, con la siguiente redacción:

«5. Por el fallecimiento, accidente o enfermedad graves del cónyuge, de persona a la que estuviese unido por análoga relación de afectividad o de un familiar dentro del primer grado de consanguinidad o afinidad, los jueces o magistrados podrán disponer de un permiso de tres días hábiles, que podrá ser de hasta cinco días hábiles cuando a tal efecto sea preciso un desplazamiento a otra localidad, en cuyo caso será de cinco días hábiles.

Estos permisos quedarán reducidos a dos y cuatro días hábiles, respectivamente, cuando el fallecimiento y las otras circunstancias señaladas afecten a familiares en segundo grado de afinidad o consanguinidad.»

Trece. Se añade un nuevo apartado 6 al artículo 373, con la siguiente redacción:

«6. Por el nacimiento, acogimiento o adopción de un hijo, el juez o magistrado tendrá derecho a disfrutar de un permiso de paternidad de quince días, a partir de la fecha del nacimiento, de la decisión administrativa o judicial de acogimiento o de la resolución judicial por la que se constituya la adopción».

Catorce. Se añade un nuevo apartado 7 al artículo 373, con la siguiente redacción:

«7. Los jueces y magistrados tendrán derecho a permisos y licencias para la

guztietara, harik eta destinoa lortu arte. Hori egin ezean, adieraziko da interes pribatuaren ondorioz daudela borondatezko eszedentzia-egoeran».

Hamaika. 370. artikulua ezabatu da.

Hamabi. 373. artikuluko 5. paragrafoa aldarazi da; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«5. Epaile edo magistratuek hiru egun balioduneko baimena izan dezakete euren ezkontidearen, eurekin antzeko maitasun-harrenak dituen pertsonaren edo odol bidez nahiz ezkontza bidez lehen gradurainoko ahaidetasuna duen ahaidearen heriotza, istripu edo gaixotasun larriarengatik; baimen hori bost egun baliodunekoa izan daiteke, arrazoi horiarengatik beste herri batera joan-etorria egin behar denean.

Baimen horiek bi eta lau egun baliodunekoak baino ez dira izango, hurrenez hurren, heriotzak eta aipatu gainerako inguruabarrek bigarren gradurainoko ahaideak, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, ukitzen dituztenean.

Hamahiru. 373. artikuluari 6. paragrafoa gehitu zaio; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«6. Semea edo alaba jaiotzearengatik, familian hartzearengatik edo adoptatzearengatik, epaileak edo magistratuak eskubidea izango du aitatasunaren ondoriozko baimena izateko hamabost egunez, semea edo alaba jaiotzen denetik, familia-harreraren inguruko erabaki administratiboa nahiz judiziala hartzen denetik edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denetik».

Hamalau. 373. artikuluari 7. paragrafoa gehitu zaio; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«7. Epaile eta magistratuek baimen eta lizentziatarako eskubidea izango dute,

conciliación de la vida personal, familiar y laboral, y por razón de violencia de género. El Consejo General del Poder Judicial, mediante reglamento, adaptará a las particularidades de la carrera judicial la normativa de la Administración General del Estado vigente en la materia.»

Quince. Se añade un apartado 5 al artículo 433bis, con la siguiente redacción:

«5. El Plan de Formación Continuada de la Carrera Judicial contemplará la formación de los Jueces y Magistrados en el principio de igualdad entre mujeres y hombres y la perspectiva de género.

La Escuela Judicial impartirá anualmente cursos de formación sobre la tutela jurisdiccional del principio de igualdad entre mujeres y hombres y la violencia de género.»

Dieciséis. Se añade un segundo párrafo al apartado 2 del artículo 434, con la siguiente redacción:

«El Centro de Estudios Jurídicos impartirá anualmente cursos de formación sobre el principio de igualdad entre mujeres y hombres y su aplicación con carácter transversal por los miembros de la Carrera Fiscal, el Cuerpo de Secretarios y demás personal al servicio de la Administración de Justicia, así como sobre la detección y el tratamiento de situaciones de violencia de género».

#### **4ª Modificación del Estatuto Orgánico del Ministerio Fiscal.**

Se modifica la Ley 50/1981, de 30 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto Orgánico del Ministerio Fiscal en los siguientes términos:

Se añade un último párrafo en el apartado 1 del artículo 14, que tendrá la siguiente redacción:

genero-indarkerian oinarrituta, norberaren, familiako eta laneko bizi-tza uztartzeko. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, erregelamendu bidez, karrera judizialaren berezitasunetara egokituko du Estatuko Administrazio Orokorraren indarreko arautegia, gai horri dagokionez.

Hamabost.433bis artikuluari 5. paragrafoa gehitu zaio; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«5. Karrera judizialeko etengabeko prestakuntzarako planak bere baitara bilduko du epaile eta magistratuen prestakuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipoari eta genero-ikuspegiari dagokienez.

Eskola judizialak urtero emango ditu prestakuntza-ikastaroak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eta genero-indarkeriaren jurisdikzio-babesari buruz.

Hamasei. 434. artikularen 2. paragrafoari bigarren idatz-zatia gehitu zaio; idatz-zati horrek hurrengo idazkera izango du:

«Ikasketa Juridikoen Zentroak urtero emango ditu prestakuntza-ikastaroak, dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari buruz eta karrera fiskaleko kideek, idazkarien kidegoak eta Justizia Administrazioaren gainerako langileek printzipio hori zeharkakotasunez aplikatzeari buruz, dela genero-indarkeriaren egoerak detektatu eta tratatzeari buruz».

#### **4. Fiskaltzaren Estatutu Organikoa aldaraztea.**

Ondoren ezarritakoaren arabera aldarazi da abenduaren 30eko 50/1981 Legea, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa onesteari buruzkoa:

14. artikuluko 1. paragrafoari azken idatz-zatia gehitu zaio; idatz-zati horrek hurrengo idazkera izango du:

«Habr  de integrarse en el seno del Consejo Fiscal una Comisi n de Igualdad para el estudio de la mejora de los par metros de igualdad en la Carrera Fiscal, cuya composici n quedar  determinada en la normativa que rige la constituci n y funcionamiento del Consejo Fiscal.»

### **5<sup>a</sup> Modificaciones de la Ley de Enjuiciamiento Civil.**

Uno. Se introduce un nuevo art culo 11bis a la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, en los siguientes t rminos:

«Art culo 11bis. Legitimaci n para la defensa del derecho a la igualdad de trato entre mujeres y hombres. 1. Para la defensa del derecho de igualdad de trato entre mujeres y hombres, adem s de los afectados y siempre con su autorizaci n, estar n tambi n legitimados los sindicatos y las asociaciones legalmente constituidas cuyo fin primordial sea la defensa de la igualdad de trato entre mujeres y hombres, respecto de sus afiliados y asociados, respectivamente.

2. Cuando los afectados sean una pluralidad de personas indeterminada o de dif cil determinaci n, la legitimaci n para demandar en juicio la defensa de estos intereses difusos corresponder  exclusivamente a los organismos p blicos con competencia en la materia, a los sindicatos m s representativos y a las asociaciones de  mbito estatal cuyo fin primordial sea la igualdad entre mujeres y hombres, sin perjuicio, si los afectados estuvieran determinados, de su propia legitimaci n procesal.

3. La persona acosada ser  la  nica legitimada en los litigios sobre acoso sexual y acoso por raz n de sexo».

«Fiskaltzaren Kontseilura berdintasun-batzorde bat bildu beharko da, karrera fiskalean berdintasun-parametroak zelan hobe daitezkeen aztertzeko; batzorde horren osaera zehaztuko du Fiskaltzaren Kontseiluaren eraketa eta jardunbideari buruzko arautegiak.

### **5. Prozedura Zibilaren Legearen aldarazpenak.**

Bat. Urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeari, Prozedura Zibilari buruzkoari, 11bis artikulua gehitu zaio; artikulua horrek idazkera hau izango du:

«11bis artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunerako eskubidea defendatzeko legitimazioa. 1. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eskubidea defendatzeko legitimazioa izango dute, ukitutakoez gain, eta horien baimenarekin beti, hurrenez hurren, afiliatu eta elkartekideei dagokienez, sindikatuek eta legearen arabera eratutako elkarteek, horien helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzea denean.

2. Ukitutakoak pertsona zehaztugabeak edo zehazgaitzak badira, halako interes zehaztugabeen defentsa auzitegietan salatzeke legitimazioa izango dute soil-soilik gai horretan eskumena duten antolakunde publikoek, ordezkaritza handieneko sindikatuek eta estatu-mailako enpresaburuen elkarteek, horien helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzea denean. Ukitutakoak zehaztuta badaude, arestian aipatutakoak ez dio kalterik egingo ukitutako horiek duten prozesu-legitimazioari.

3. Jazarpena jasan duen pertsonak baino ez du legitimaziorik izango, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan».



Dos. Se modifica el supuesto 5º del apartado 1 del artículo 188 de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, que quedará redactado del siguiente modo:

«5. Por muerte, enfermedad o imposibilidad absoluta o baja por maternidad o paternidad del abogado de la parte que pidiera la suspensión, justificadas suficientemente, a juicio del Tribunal, siempre que tales hechos se hubiesen producido cuando ya no fuera posible solicitar nuevo señalamiento conforme a lo dispuesto en el artículo 183, siempre que se garantice el derecho a la tutela judicial efectiva y no se cause indefensión.

Igualmente, serán equiparables a los supuestos anteriores y con los mismos requisitos, otras situaciones análogas previstas en otros sistemas de previsión social y por el mismo tiempo por el que se otorgue la baja y la prestación de los permisos previstos en la legislación de la Seguridad Social».

Tres. Se añade un nuevo apartado 5 al artículo 217 de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, pasando sus actuales apartados 5 y 6 a ser los números 6 y 7, respectivamente, con la siguiente redacción:

«5. De acuerdo con las leyes procesales, en aquellos procedimientos en los que las alegaciones de la parte actora se fundamenten en actuaciones discriminatorias por razón del sexo, corresponderá al demandado probar la ausencia de discriminación en las medidas adoptadas y de su proporcionalidad.

A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, el órgano judicial, a instancia de parte, podrá recabar, si lo

Bi. Urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean, Prozedura Zibilari buruzkoan, 188. artikuluko 1. paragrafoaren 5. lerrokada aldarazi da; lerrokada horrek hurrengo idazkera izango du:

«5. Etendura eskatu duen alderdiaren abokatuaren heriotza, gaixotasuna edo erabateko ezintasuna nahiz amatasunaren edo aitatasunaren ondoriozko baja gertatu bada. Egitate horiek, auzitegiaren iritziz, behar beste egiaztatu behar dira, eta ezinezkoa izan behar da beste data bat zehaztea, 183. artikuluan xedatutakoaren arabera. Edozein kasutan, etendura hori gauzatu ahal izango da babes judicial eragingarrirako eskubidea bermatzen bada eta defentsarik eza sortzen ez bada.

Orobat, aurreko kasuen baliokide dira, eta betekizun berberekin, antzeko beste egoera batzuk, gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuetan ezarritakoak, eta Gizarte Segurantzaren legerian bajak eta baimenek eratorritako prestazioak zenbat denborarako eman eta horrenbeste iraungo dutenak.

Hiru. Urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean, Prozedura Zibilari buruzkoan, 217. artikuluari 5. paragrafo berria gehitu zaio, egungo 5 eta 6. paragrafoak, hurrenez hurren, 6 eta 7.a izatera igaro direla; idatz-zati horrek hurrengo idazkera izango du:

«5. Prozesu-legeekin bat etorritik, prozedura batean alderdi auzi-jartzailearen alegazioak sexuaren ondoriozko bereizkeriazko jardueretan oinarritzen direnean, prozedura horretako pertsona demandatuak frogatu beharko du hartutako neurriak bereizkeriarik gabekoak eta proportzionalak direla.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondoretarako, organo judicialak, alderdiek hala eskatuta, eskatu ahal

estimase útil y pertinente, informe o dictamen de los organismos públicos competentes.»

### **6ª. Modificaciones de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.**

